AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

4848

442/2013 DEKRETUA, azaroaren 5ekoa, Gorka Erlantz Zorrozua Aierbe jauna Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko kide izendatzen duena.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko Legearen 6.3 eta 7.2 artikuluetan ezarritakoari jarraituz, eta Batzorde horrek erabili behar dituen gaiei buruz duen gaitasun profesional egiaztatua kontuan hartuta, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko azaroaren 5ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Gorka Erlantz Zorrozua Aierbe jauna Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko kide izendatzea.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko azaroaren 5ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.